

# Goi Aro Berriko Bizkaiko Batzar Nagusiak 1630.eko Konkordia baino lehenago: desoreka eta gatazka

MIKEL ZABALA MONTOYA\*

## 1. SARRERA

**B**izkaiko Aro Berriko erakundeen egituretan bi ezaugarri bereizgarri nabarmenekoak dira. Lehenik, oinaztar eta ganboatarren arteko banaketa mantentzea, bandokerietako aztarna edo. Bestelako azterketaren faltan, erabilgarritasunik gabeko zaharkitutako oroigarritzat har genezake puntu hori, nonbait. Edozelan ere, berehala bertan behera gelditzen da ideia hori, garaiko protagonistek beraiek sarritan emandako garrantzia erreparatuz gero. Prozedura horretako benetako izaera eta ezkutuko interesak ezezagunak ditugu orain arte, baina argitzen ahalegintzea erakunde horien benetako funtzionamendua ezagutzeko funtsezkotzat jotzen dut.

Beste ezaugarri berezia bandoen gehiegikerien testuinguru bereko nolabaiteko emaitza izandako nekazal gune eta Hiribilduen arteko zatiketa dugu. Auzi hau 1487.eko Chinchillaren Akordioaren garaikoa da, gutxienez, aipatutako arazoari aurre egiteko asmoz, hain zuzen ere; baina handik gutxira zaharkituta gelditu zen, aldibereko aldaketa ekonomikoak zirela medio (1). Abagune ekonomikoaz baliatuz, Hiribilduak indartzen joan ziren, geroago aldaketetako oihartzuna erakundeetara ere bideratu zutela. Bertan Hiribilduak baztertuta zeudenez gero (Batzar Nagusietatik kanpo, Batzak Partikularretan mugatuta eta zigilurik gabe, alegia), bazterketari aurre egiten tinkotasunez saiatu ziren (2). Baina prozesua aurreikus zitekeena baino luze eta korapilatsuagoa izan zen, Lur Lauak mende oso batez eutsi baitzion. Ondorengo orrialdeetan gai honetara hurbiltzen saiaturiko naiz Chinchillaren Akordiotik 1630. urteko Konkordiarra arte Bizkaiko

(1) Batzuen ustez –J.A. GARCÍA DE CORTÁZAR [ET AL.] (1985: IV, 82)–, bandokeriak apaldu eta Hiribilduetako merkatal jarduerak suspertu zituen Chinchillaren Akordia nekazariei ere mesedegarri izan zitzairen eta, ondorioz, Jaurerri mailako bandokideen nagusitasuna orekatu zen hala edo nola.

(2) G. MONREAL CÍAK (1974: 96) ohartarazi zuenez, bandokeriak amaitutakoan, erakundeetako arazorik nagusia huraxe izan zen.

\* Historian Doktorea  
(Deustuko Unibersitatea)

Jaurerriko erakundeetako gatazka ikusgarrietarikoak gainbegiratzeko.

Goi Aro Berriko egoera soziopolitiko berria hasi eta berehala, 1514. urtean, Bizkaiko Hiribilduak lehen aldiz Jaurerriko aldentzen saiatu ziren (3). Ahaletan hau bertan behera gelditu zen Koroaren partaidetza zela medio, baina horren truke hainbat eskakizun onartu behar izan zen. Iturri-eskasiak ez du urte haietako prozesua xehetasunez jarraitzen uzten. Dena dela, garai berean –1526.ean, hain zuzen ere– Foru Berria indarrean sartzeak berehalako aldaketan berri ematen du, bandokeri osteko lasaitasunaren islada, nonbait. Edozelan ere, testu horretan Batzar Nagusietan parte hartzeko edota kargudunak hautatzeko ohiko prozedurei buruzko aipamenik ez izatea deigarria da oso. Batzar Nagusietako partaidetzari dagokionez, apropos egin zitekeen Chinchillaren Akordio deseroso hura ez betetzearen beldurrez edo. Honek, bestalde, gatazkarik sortu baino ekiditeko balio omen zuen (nahiz eta, blokeen arteko tirabirak zirela kausa, noizbait aitzaki honetaz baliatu), dirudienek Chinchillaren Akordioa aipatutako puntuan behin eta berriz ez zelako bete. Baina aurreko arrazoibidea alferrikakoa da hautatzeko prozeduraren falta ulertzeko. Izan ere, handik gutxira zehazgabetasunak gatazka piztu zuen eta Gaztelako Kontseiluarengana jo zuten bertan epai zedin.

Jakina, aurreko puntuak (bata, bestea edota biak) 1526. urtean indarrean sartutako testutik kanpo geldi zitezkeen erabateko adostasunik ez lortzeagatik ere. Hala ere, nik dakidanez, ez da oraingoz horren egiaztapenik ezagutzen. Zalantzarik gabekoa, berriz, zera da: Foru Berria indarrean sartu eta handik gutxira goian aipatutako auziek gatazka handiak sortarazi zituztela Jaurerriko erakundeetan, nahiz eta egokitzapen berriak izan. Kargudunak hautatzeko prozedurari zegozkionez, zehazgabetasunaren ondoriozkoak ziren.

Izan ere, lehenbiziko gorabeherak 1517. urtean azaleratu ziren, hauteskundeetako prozedura zela medio. Protesta hartako partaideak Arratia, Bedia, Markina eta Zornotzako Merinaldeetako Elizateak izan ziren. Nahiz eta, orokorrean, kargudunak hautatzeko prozedurak 1549.eko Errege Eginkizunean xedatutakoarekin desberdintasun handirik ez izan (4), nonbait, beste hainbat alorretatik bandokeriak

## 2. KARGUDUNAK HAUTATZEKO PRO- ZEDURA BERRIA ETA BANDOEN ARTEKO OREKA (1546/49)

(3) G. MONREAL CÍA (1974: 97-98). Ik. BFAA: AA: Errege Probisioak: 1. Erreg.

(4) Izan ere, XVI. mendeko lehen erdialdean Bizkaiko Jaurerriaren indarrean egon zen kargudunak hautatzeko prozedura ez da xehetasunez ezagutzen. Lehen Gobernuetan hamabi Erregidore ez zirela izan badakigu. Baina 1500.eko Otsailak 18ko Hauteskundeei buruzko Ordenantza zehazgabekoa da oso. Ik. E.J. LABAYRU Y GOICOECHEA (1899: III, 735-736). Eta Lur Lauaren lehenbiziko Akta Liburuak (1523etik 1542era eta 1542etik 1558era bitartekoak, hain zuzen) galdu omen dira. Agiri hauei buruz eta Idazkaritzaren esanetara zegoen gainerako guztiari buruzko erreferentziak hemen dira: BFAA: AA: Kontuak: 1. Erreg. (1565). Bestalde, gorde diren Akta Libururik zaharrenak, XVI. mendeko bigarren erdialdekoak, argitara eman dira (nahiz eta hauek baino ez): J. ENRÍQUEZ FERNÁNDEZ

uxatu ziren bezala, bertatik ere hasieratik aldentzen ahalegin zela pentsa daiteke.

XVI. mendeko erdialde inguruan auzi hura berpiztu zen, oinaztar eta ganboatarren arteko banaketarekin nahastuta. Elizate ganboatar batzuk (5) –Zeanurik, Dimak, Arteak, Ubideak, Galdakaok eta Zamudiok, besteak beste– bozketak Merinaldeka antolatzea eskatu zuten. Eskatzaileek proposatzen zuten prozedura ez dago guztiz argi. Ganboatarrek Gobernuan bi bandoak parekatzea nahi omen zuten, Elizate oinaztarren kopurua altuagoa izanik, maiz kargudun gehiago ere lortzen zutelako edo (6). Honek alde zurretik zozketak egiterakoan Elizateak zein bandotakoak ziren ez zela kontutan hartzen pentsatzera eramán gaitzake.

Edozelan ere, auzia piztu zuen arazo bakarra ez zen aipatutakoa izan. Kalagorriko Apezpikutzarekiko negoziaketa latzen testuinguruan, 1545.eko Abuztuak 27ko Batzar Nagusietan behin-behineko akordio batera iritsi zen, baina hainbat emendakin aurkeztu ziren. Hauetako batetan Hiribilduek bi Fiskal –bando bakoitzeko bana– sortzeko proposamena gaitzesten zuten, hasierako Fiskal bakarrekoa hobetsi zutela.

Bestalde, Lur Lauko kide haiek ez ziren aurrez aipatutako gertakizun guztietako ustezko protagonista izandako Agustín Hernández Korrejidorearekin amorrarazitako bakarrak (hala ere, kargudun horren papera zehazki zein izan zen guztiz argi ez daukat). Izan ere, Bermeoko Hiribilduak –edota, agian, hainbat bermeotarrek, zehazki jakiterik ez dago eta– guztien aurrean salatzeak asmoa agertu eta horretarako Juan de Arteagarekin elkarrizketa izan zuen (7). Jarrera ulergarria da oso, Korrejidorearen portaera kontutan hartuz gero. Erregimentuetako txandak bete ez izana (8), marinelen eskakizun berriak edota portuetako merkantziatan % 3ko zerga ezartzeko Erregearen egitasmoak, besteak beste, Korrejidorearenganako grina

[ET AL.] (1994) J.I. GARCÍA ARBAIZA [ET AL.] (1994), J.A. ITURBE AMOREBIETA [ET AL.] (1994), A. LORENTE RUIGÓMEZ [ET AL.] (1994 eta 1999) eta E. SEMERO CUTANDA [ET AL.] (1994, 1999 a eta b).

(5) Jakina, bando-zaletasun ganboatarra zalantzan jar dezakegu. Alde batetik, ezagutzen dugun bando bakoitzeko Udalerrien banaketa beranduagokoa izateagatik –E.J. LABAYRU Y GOICOECHEA (1901: V, 93-94). Eta, bestetik, Errege Eginkizunak Merinaldeen arteko irizpide desberdinak baino ez dituelako zehazten, bakoitzaren barnean bando bietako Elizateak egotea posible izanda ere. Azkeneko agiri horren zehazgabetasuna ulergarria da: eskatzaileek bandoaren aitzakia erabil zezaketen, nahiz eta bertako Elizate guzti-guztiak beraiekin bat ez etorri.

(6) “Este pleyto se trató sobre que la parcialidad ganboyna pretendía que la mytad de los ofiçiales del Regimiento abian de ser ganboynos; y la oñazina lo contradecía, por ser en mayor parte en los botos de las anteyglesias, y que asy abía de tener más ofiçiales.” MAHN: DK: 28328, 9. znbk.

(7) Agustín Hernández Korrejidoreak horren berri ba omen zeukan. Izan ere, eskakizunak guztien aurreko Batzar Nagusietan baino idatziz aurkezteko eskatu zien; baina alferriakoa izan zen. Horrexegatik azpikeria hauetako nondik norakoa ezezaguna dut.

(8) 1540eko Uztailak 13tik ez zen Bermeon Erregimenturik izan.

pizteko zioak izan zitezkeen. Eragile pertsonalak ere egon zitezkeen: Korrejidoreak Hortuño de Arteaga, Juanen ahaidea zena, epaitu berri zuen.

Arrazoi guzti horiek 1546.eko Martxoak 30ean tentsio handiko giroan bildutako Batzar Nagusietan eragin zuten (9). Han bi bandoetako talde handiak batu ziren, goitik behera armatuta gainera, Batzar haietan gerta zitezkeenari aurre egiteko edo. Bilera hartan (10) Agustín Hernández Korrejidorearen erresidentzia burutu beharra zegoen, jarraian Juan Serrano Vigil bere ondokoari harrera egiteko. Batzarra hasi eta gero Hernándezek Presidentziako jesarleku nagusienetako bat eskatu zuen, une hartan Juan de Arteagak betetzen zuena, hain zuzen ere. Arteagak altxatzeari uko egin zion. Presidentzian ere eserita zegoen Gomez González de Butrón ahaide nagusi oinaztarrak, berriz, berehala eskaini zion bere jesarlekua, baina Korrejidoreak ez zuen onartu “por mucho que le porfió”. Korrejidore berriak Juan de Arteagari esertokia Hernándezi uzteko eskatu zion, baina hori ere alferrikakoa izan zen, ahaide nagusi ganboatarrak ezetza mantendu zuen eta. Harropuzkeriaz, gainera: bere hitzetan, ez zuen egingo “aunque el Condestable viniese o se lo mandase” (11) edota “aunque le costase siete o beinte bidas de hombres”. Are gehiago, desakaturia larriagotu zen Korrejidore ohiak Arteagari “Beso las manos de V.M” esan ziola, ganboatarrak “Yo no las buestras” erantzun ziolako. Serrano Vigil, beste biek halako jarrerak mantenduz gero, gerta zitezkeenaren arriskuaz konturatu zela (bi bandoetako jarraitzaile kopuru handiak bertan ziren eta), grina moteltzen saiatu zen. Horretarako Batzarretik irteteko agindu zion Hernándezi, beti ere kide oinaztar batzuekin batera –Antonio de Múgica “y otros sus hermanos bastardos y tíos y escuderos principales”– Korrejidore ohi babesteko, nonbait.

Ahaide nagusi ganboatarraren aurkako auzia hurrengo egunean hasi zela, Jaurerriak Arteaga defendatzeari ekin zion. Epaitzeko ohiko prozedura bete ez izana leporatzen zion Fiskalari, Gernikako Arbolan azaltzeko nahitaezko deia ez betetzeagatik. Era berean, jesarleku eztabaidagarriak ahaide nagusiei zegozkiela ohartarazten zuten (12).

Akusatutakoaren aitortzak ondo baino hobeto erakusten dizkigu bere izaera (13) eta erakundeetan ahaide nagusiek izandako garrantzia.

(9) 1549.eko Errege Eginkizunaren arabera auzia Agustín Hernándezen ondoko Juan Serrano Vigil Korrejidore berriaren aurrean ospatu zen. Hala ere, liskarra lehenago hasi zela suposa daiteke. Batzar Nagusi hauek eta ondorengo epaiketari buruzko informazioaren iturria hauxe da: VEKA: BE: 786 PS, 8 znbk.

(10) Ik. Eranskina: 1. Agiria.

(11) Halako erantzuna Kondestableak Nafarroa defendatzeko asmoz luzatutako soldaduen eskakizun berriari lepora dakiok. 1542.eko Urriak 17ko Batzar Nagusietan eztabaidatutako eskakizun honek erreakzio desberdinak eragin zituen Bizkaian.

(12) XVI. mendeko lehen erdialdean Gipuzkoako erakundeetan ahaide nagusien partaidetza X. ALBERDI LONBIDEK ETA A. ARAGÓN RUANOK (1995: 287-312) aztertu dute.

(13) Apirilak 2an deklaratzera aurkezteko deitu zuten, baina hilaren 10an azaldu zen. Aitzakia zera izan zen: “estava enfermo de su persona de mal de riñones y al presente no estava en disposición de ponerse en camino.” VEKA: BE: 786 PS, 8. znbk.

Batzar Nagusietan gertatutakoaz galdetu ziotenean, ez zen batere lot-satu honako hau adierazten: “lo de las vidas no se le acuerda, y que cree que dixo lo del Condestable.” Bestalde, Batzar Nagusietan betetzen zuen papera zela eta:

“Preguntado si tiene boto en la dicha Junta, o a qué propósito fué a ella, dixo que este testigo no tiene más boto de que tienen los cavalleros de su calidad, que fue como sus antepasados, y como siempre a hido hasta aquí, porque le parece que es servicio de Sus Magestades y bien de la República de este Señorío, porque sienpre es (*sic*) conmigo a de tratar esto” (14).

Nahiz eta auzi honen azkeneko sententzia ezezaguna izan, Jaurerriaren jokabidea adierazgarria da oso, Batzar Nagusietan izandako gertakizunen irizpide argia jakinarazten digulako. Izan ere, liskar honen azpian leinu handiek piztu nahi izan zuten ahaideen arteko elkartasuna zegoen. Korrejidorearenganako oinaztar edota ganboatarren jarrera kontrajarriak erakundeetan Lur Laua bere osotasunean (talde modura, alegia) indartzeko azpijekoa besterik ez zen. Gómez González de Butrónek eta Juan de Arteagak, eginkizun oposatuak baina osagarriak betetzen, antzezpen paregabea burutu zuten Batzar Nagusietan aldaketa prozesu sakonean murgildutako gizarte-antolaketa –edota erakunde mailakoa, gutxienez– iraunarazteko. Izututako Korrejidoreak, seguru asko, ezer gutxi ulertu zuen honetaz; baina bere zerbitzuetako orria garbi mantentzeagatik edo, jokatutako papera gainerako partaide guztiak bezain ondo osatu zuen, nahigabe izanda ere.

Hautatzeko prozedurari buruzko auzian Kontseiluak ebatzitako sententzian (15) aipatutako Batzar Nagusietako gertakizunek eragina izan omen zuten. Baina hasierakoak ez zituen bi partaideak ase. Izan ere, biek apelazioa aurkeztu zuten. Dena dela, aurreko sententzia finkatu zela, ganboatarrekin bat ez zetozen Merinaldeek Jaurerriaren izenean Errege Eginkizuna eskatu zuten. Bertan, hauteskondeak egiteko prozedura zehazten zen, non kargu guztiak bi bandoen artean berdintasunez banatu behar ziren. Honek, hala edo nola, ganboatarren asmoak gauzatu zituen, bando honek oinaztarrek baino Udalerri kopuru murriztagoa izateagatik. Era berean, zorigaitzoko Batzar Nagusietako liskarren ondorioz, aurrerantzean ahaide nagusietako partaidetza bileretan debekatu zen, lehenagoko ohitura bertan behera utziz (16). Garrantzi handirik gabeko debekua zen hura, nonbait. Izan ere, Erregearen erabaki deseroririk ez betetzearen aurrekaririk

(14) VEKA: *Ibid.*

(15) MAHN: DK: 28328 PS, 9. znbk. D. ARETIO Y MENDIOLEAK (1943: 163-169) argitaratu zuen.

(16) Forua eraldatzeko 1526.eko Batzar Nagusietara oinaztarren Butrón y Múxica eta ganboatarren Arteaga oinetxeetako titullarrak azaldu ziren.

ba omen zegoenez gero –1487.eko Chinchillaren Akordioa (17), adibidez–, jasotzaileei ez zien arazo larriegirik erakarri (18). Egia esan, sententzia ez zitzaion kaltegarri izan bietako inori, nik uste. Karguetako banaketa orekatuaren etekina edota galera alde batera utzita, Lur Lauarentzat, bere osotasunean, probetxu politikoaren etorkizuneko iturburu berria gorpuztu zen: bandoak erakundeetan finkatzea. Oinaztar eta ganboatarrak bando-gerraren garaitik aurrera eraldatu zuten erabat, baina beraien egiturak euskarri paregabekoa izan zitekeen Hiribilduetako garapena zela kausa mehatxupean sentitzen hasi zirentzat (19).

Akordioaren ahulezia –edota, agian, bere sendotasuna– jarraian azaleratu zen, menpeko herri batzuk Batzar Nagusietara joateko eskubidea aldarrikatu zutenean. Orduan, talde ganboatarrak bi blokeetako kopuruak orekatzearen argudioari ekin zion (20). Dena dela, ahalegin porrokatua izan zen hura, Errege Kontseiluak aurrerantzean Batzar Nagusietara ahalmen osoz azaltzea debekatu zielako 1553.eko Otsailak 23ko sententziaren bidez (21).

Aro Berriko lehen urte haietan, zailtasunak gaingitu ahala, Jaurerriko erakundeak gorpuzten joan ziren (22), indar kontrajarrien gaitasun eta aukera desberdinen arabera. Baina bertako aurkakotasunen ondorioz oreka oso ezegonkorra zen eta edozein akatsek borroka gogorrek piztu zitzaizkeen. Korrejidore baten zorigaiztoko kudeaketak, esaterako.

Oso denbora gutxiren buruan aurrekoa baino gertaera larriagoa suertatu zen. Bigarren honetan aurkariak argiago agertu ziren, nahiz eta –berriz ere– bando-zaletasuna ezkutuan egon. Azken batez, enfrontamenduaren pizgarriak errepikatu ziren, baina kasu honetan Erregearen ordezkariak nagusiena jo zuten eta guztiz. Hegas Benegas Korrejidorearen lana, orokorrean, ez zen bikaina izan. Bi urtez luzatutako bere agintaldian okerreko aurreikuspenek, gehiegikeriek eta

### 3. TIRA-BIRAK BERRIRO: HEGAS BENEGAS ET A GORTERAK O KOMISIOA (1558/60)

(17) 1559. urtean Dávalos Lizentziatuak, Balmasedako Udal Ordenantzak eragindako auzi baten testuinguruan, zera zioen: “las Hordenanzas del dicho Licenciado Chinchilla eran muy perjudiciales y escandalosas, y por serlo en la elección de oficiales del Señorío de Viscaya y de la Villa de Bilbao fueron rebocadas y se dió nueva orden.” VEKA: BE: 226 PS, 2. znbk.

(18) 1594.eko Martxoak 4ko Hiribilduetako Erregimentuetan ahaide nagusiak Erregimentu Partikularretan azaltzeko debekua arautzeko ekimena adostu zuten.

(19) Bandoak ez ziren Bizkaiko erakundeetan bakarrik erabili. Garai berean beste horrenbeste gertatu zen, zio desberdinengatik izanda ere, Bilbo eta Begoñako Udal Erregimentuetan. Ik. M. ZABALA MONTÓYA (2003: 157-158).

(20) Jaurerriaren arabera, “si habían enviado procuradores con poder, era porque algunos de los parientes mayores, por tener mas votos y mas parte en las dhas. juntas, lo avian echo que los dieran.” E.J. LABAYRU Y GOICOECHEA (1900: IV, 280).

(21) BFAA: AA: EE: 1. Erreg., 7. znbk. (1554.II.1).

(22) Beste tokitan ere erakundeak finkatu ziren data haietan. Kataluniari dagokionez, cf. J. ARRIETA ALBERDI (1994: 155).

trakeskeriek, bat eginik, Bizkaiko Batzar Nagusietan sekula ez izan-dako liskar larrienetarikoa eragin zuten (23). Jakina, Korrejidoreak kargua hartu zuen momentu desegokian, Frantziar eta Hispaniar Erregetzen elkarren aurkako gerraren testuinguruan, hain zuzen ere. Izan ere, Benegasek zin egin bezain laster, gerrari lotutako Erregearen azkeneko eskakizunaren berri eman zuten bileran. Eta halako hartan Jaurreriak eskakizunari aurka egin zion. Horretarako erabakia Udalerrietan hartzeko adostu zen, geroago beste bilera deitu behar izango zela horren berri emateko (24). Hiribilduek, bide batez, Korrejidoreari txandak bete zitzaizkion eskatu zituen. Bilera berrian bizkaitarrik lurraldetik kanpo ez irteeta erabaki zuten, –ustez– bertako mugarriak defendatzeko horren beharra egoteagatik. Hala ere, Korrejidoreak nolabaiteko azpijokoa aurrera eramanez omen zuten, Kapitainak izendatuz edo. Honek Lur Lauaren protesta eragin zuen, eta 1558.eko Martxoan Puerto Doktoea ahaldu bidali zuten Gortera aurka egiteko (25). Eginkizun horren emaitza ez dut ezagutzen. Dena dela, Hegas Benegasek Gobernuaren espeteratu zuen bi hilabetez, aipatutako gaiari buruz erakutsitako aurkakotasunagatik (26). Hiribilduek ere ez zuten aukera hura alferrik pasatzen utzi nahi izan eta 1558.eko Uztailak 5eko Batzar Nagusietan, Lur Lauak Korrejidore berria exijitu zuela, Benegasen agintaldia luzatzea eskatu zuten. Zigorrik gabe geldituko ez zen probokazio hutsa zen jokabide hura.

Hurrengo hilabeteetan Erregearen soldadu eske birritan aritu zen eta Jaurreriak lehenbiziko eskakizunari baino ez zion aurka egin (27). 1558.eko Urriak 25eko Batzar Nagusietan Gipuzkoa laguntzera mila lagun bidaltzea erabaki zuten. Aktetan idatzitako protesta bakarrak portu batzuetakoak dira (28) (zerbitzu militarretatik zigortuenak, seguru asko): Bermeo, Plentzia, Portugaleta eta Ondarroa, hain zuzen. Lur Lauak, berriz, erabateko adostasuna finkatu nahian edo, ahaide nagusiak Kapitain izendatu zituen, ganboatarrak zatitu baziren ere (Urquizu leinuaren jarraitzaileek Prudencio de Abendaño edota, bestela, Francisco Vélez de Belaustegui izendatu nahi zuten, Arteaga leinuaren aldekoek Diego de Arteaga aukeratu zuten bitartean) (29).

Bestalde, Korrejidorea Entzutegia Bilbon finkatu nahi zuten Ahaldu Nagusi eta Gobernuaren beste kide batzuen (30) etsai bilakatu

(23) Gipuzkoaren kasuan, Korrejidoreekin izandako gorabehera batzuk G. RUIZ HOSPITALÉK (1997: 95) aipatzen ditu.

(24) 1557.eko Irailak 28ko Batzar Nagusiak.

(25) 1558.eko Martxoak 26 eta 27ko Lur Lauko Erregimentuak.

(26) D. AREITIO Y MENDIOLEA (1943: 86).

(27) 1558.eko Abuztuak 2ko Batzar Nagusiak.

(28) Durangok azaldutako kexa sufritu berri zuten sutearen ondorioa zela ohartu beharra dago.

(29) Oinaztarrek Gomez González de Butrón edota horren semerik hautatu zuten.

(30) Gai honi buruzko sententzia hel egin zutenen zerrendan ez dira Gobernuaren kargudun guztiak agertzen, baina kontrako irizpiderik egon zirenik zalantzan jar dezakegu, bestelako prozeduraren bidez ez azaleratzeagatik.

zen txandak betetzen (31). Praktikotasuna eta zirikada nahastu ziren, bata eta bestea nekez ezberdin daitezkeela. Benegas, agian oreka hala edo nola bilatu nahian, tinko mantendu zen aurrez ebatzitakoari eutsiz. Auzia Kantzelaritzaraino heldu zen eta bertan Korrejidorearen autoa onetsi zuten (32).

Gobernuaren espetxealditik giroa pozoituta zegoen, baina hurrengo hilabeteetan egoera larriagotu zen. Korrejidoreak Hiribilduen aldeko jarrera hartu zuen, Bilboren aldekoa batik bat. Tamayo Esportazioetako Epailearen gehiegikerien aurkako neurriak hartu ziren eta Bilbon ezarri nahi zuten mugaren kontra jo zen (33). Aldi berean eguneroko eginkizun publikoek geldiuena pairatu omen zuten, aurreko Sindikoa izandako Martín de Aranak Jaurreriko Zigilua itzultzeari uko egin ziolako. Korrejidoreak, berriz ere, kartzelaratzeko agindu zuen (34).

Hauteskunde berriek (35) egoera konpondu baino okerragotu zuten. Berehala gainera. 1560.eko Urtarrilak 12 eta 15 bitarteko Lur Lauko Erregimentuetan ezadostasuna ageri zen, Gorteetako ordezkarien izendapenak zirela medio (36). Oinaztarrek bi Ahaldun Nagusiak joatea eskatu zuten, ganboatarrek, berriz, –sinesgaitza ematen badu ere– Lope de Leusarra Ahaldun Nagusi oinaztarra bertaratzearen alde jo zuten bitartean. Juan de Zaldiaran Erregidorea azaldu ez zenez gero, ordezkariak bikoitza bidaltzea erabaki zuten. Dena dela, hurrengo egunean kargudun ganboatar batzuk bozketa non oinaztarren irizpidea nagusitu zen, baliogabetu nahi izan zuten, bando bakoitzak bere aldetik –ustez, ohi bezala– ez zuelako bozkatu. Ganboatar haiek argudioa benetan sinisten zuten ala beste hautagairen bat buruan ote zeukaten –Urquizu edota Arteaga leinuetako titullarrak, esaterako– galdetzea zilegi da. Esanak esan, ez dut uste, hipotesiak bezperako bozketan zergatik ez zuten aipatu ez duelako azaltzen. Nire iritziz, ganboatarren helegitea funtsa handirik gabeko aitzaki hutsa besterik ez zen, erakundeetako normaltasuna oztopatzeko asmoz, Benegasen politikaren kontrako protesta gisa (izan ere, Lur Lauak halako egoerari aurre egiteko bandoengana jo zuten). Hala izatekotan, jukutria bikaina izan zen. Korrejidoreak ez zuen auzi hartaz ezer jakin nahi izan eta aurrerantzean bere partaidetzarik gabeko kargudunen bilerarik debekatu zuen, jarraian handik gutxira kanpoan egongo zela iragarri zuela. Dena dela, eztabaida berotu eta luzatu zen, baina azkenik,

(31) Gipuzkoan ere luzaro iraun zuen arazoa. Cf. S. TRUCHUELO GARCÍA (1997: 114-119).

(32) "...mando que los Diputados Generales que de aquí adelante guarden la Ordenanza del dicho Señorío hecha sobre el tiempo que han de residir los Diputados del dho. Señorío donde el Corregidor de Vizcaya residiere." VEKA: BES: 1. K. (1559.V.7).

(33) Dena dela, halako ekimenak 1558.eko Abuztuak 2ko Batzar Nagusietan onartu ziren.

(34) 1559.eko Otsailak 9 eta 11 bitarteko Lur Lauko Erregimentua.

(35) 1559.eko Azaroak 11 eta 14 bitarteko Batzar Nagusiak.

(36) Ordezkarri haiek betekizun ugari zeukaten: Korrejidore berriaren eskaera, merkatal itsasontzi atzeritarren aurkako ekimena, konbertituen kanporaketa, etab.



kontrako irizpideak entzun eta gero, Benegasek Ahaldu Nagusi ganboatarra bigarren ordezkari izendatzea ebatzi zuen, bando bereko kideen protesten artean. Batzordeak eraman behar zituen jarraibideak Benegasek hartu zituen. Eta laguntza ez zuen ordezkariengandik jaso –hala eskatzen zen eta– Aholkularia zen Matienzo Lizentziatuarengandik baizik, Bilbon bizi zela argudiatuz. Guzti honek eztanda egin behar zuen hurrengo Batzar Nagusietan. Benegasen erresidentzia aztertuko zuena, hain zuzen ere.

Aipatutako bilera 1560.eko Urtarrilak 30ean izan zen (37). Hegas Benegasek arriskua aurreikusi eta badaezpadako neurriak hartu zituen. Bertan egoteko eskubidea ahaldunek baino ez zuten izango, aurrez betetako ohitura bertan behera utziz, jendetza handia bil ez zedin. Horrez gain, armarik eramatea debekatu zuen (38). Bestalde, ahaide nagusiak bereganatzen ahalegindu zen, beraien menpekoen laguntzaz bilerako segurtasuna berma zezaten. Azkeneko ebazpen honek, hamar urte lehenagokoaren guztiz kontrakoak, bi Ahaide Nagusien protesta eragin zuen Juan de Aguilar Korrejidore berriaren aurrean. Dena dela, ez dirudi neurria bete zenik. Ezta gainerakoak ere, nonbait. Izan ere, Batzar Nagusietan jende kopuru handia batu zen (39). Bilerako tentsioa hasiera-hasieratik nabarmendu zen. Ahalmenak aztertzen lehenbiziko arazoak izan ziren, armak izateagatik ahalduen bat kanporatu zuen eta. Hegas Benegasek zera zioen: “que aun venidos a matar, donde quiera les daría resistencia”. Huraxe egiazkoa omen zen Korrejidorea alkabuzariz “con sus mechas encendidas” inguratuta azaldu zelako. Korrejidorearen mesfidantzagatik partaideek alkandorak ireki behar izan zituzten armarik ez zeramatela egiaztatzeko. Aginte-makila bestelako arazorik gabe besterenganatu zen. Baina asanbladako giroa berotu zen aurreko bi urtetako Sindikoa izandako Juan González de Munitizek kontuak hartzeko eskatu zuean. Honen aurrean Benegasek bere ondokoari Sindiko ohia atxilotu zezan exijitu zion. Dena dela, Batzar Nagusietako partaideen geldiezinezko amorrua piztu zuena bermerik aurkezteko (40) errefusapena izan zen. Benegas, berehala, handik hanka egiten saiatu zen, ihesak zeraman arriskua –Martín de Belaustegui Merinordeak jakinarazi zion modura– kontutan hartu gabe. Orduan Begoñako ahaldua zen Gregorio Gómez de Leguizamónek bi Errege Probisio eta txosten bat atera eta guztien aurrean irakur zitzan eskatu zion.

(37) Eranskina: 2. Agiria. Besterik ez bada zehazten, hona hemen Batzar Nagusi hauei buruzko gainerako aipamenetako iturria: VEKA: BE: 188. PS, 1. znbk.

(38) “...que nynguna persona que no sea oficial, procurador o síndico o diputado de las villas e anteyglesias deste Señorío no se alle en la dicha Junta, y los oficiales que ansi se allaren no lleben armas ofensivas, arcabuzes, ni ballestas, so pena de vida e por pérdida de ellas y un año de destierro deste Señorío e de cada diez mill maravedis para la Cámara de Su Magestad.” VEKA: BE: 188. PS, 1. znbk.

(39) “...despues que los cavalleros se echaron de la dicha junta jamas ha visto tanta jente en la dicha Junta.” VEKA: Ibid.

(40) Eskatu ziotena izugarrizko diru kopuru handia zen (30.000 dukata inguru).

Korrejidore ohiak leitzera arbuaiatu, paperak presaka gorde (41) eta harmailetik irteteari ekin zion larrialdiak gainditutako Aguilar Korrejidore berria eta Bilbotar batzuen laguntzaz. Iskanbila hartan Benegasi zuzendutako heriotzako mehatxuak entzun ziren; baina aditu ezezik, gauzatzen ere saiatu omen ziren. Benegas zorionekoa izan zen, azkenik, Arbola ondoko Ospitalera heltzen, zalaparta atzean utziz.

Jakina: egun hartako Batzar Nagusiak honela bukatu ziren beste-lako akordiorik gabe, Lur Lauko Erregimentuak deitzea salbu. 1560.eko Martxoak 15ean Bermeon ospatzekoa zen beste bilera hartara, “todos los que quisiesen yr” azal zitezkeen, Benegasen agintaldiko gehiegikeri guztiak argitzeko.

Erregimentu haiek Korrejidore ohiaren kontrako prozesu bihurtu ziren, aurreko Batzar Nagusietan falta zen lasaitasunez, noski. Hona hemen aztertutako gai batzuk (42):

1. Benegasen kontrako auzia Jaurerriak bere gain hartzea. Prozesu ugari ziren: Jaurerriko zutoihalaren ondoriozkoa (kargudun batzuk dirua gastatzera behartu eta kartzelaratu zituena) edota erresidentziak berak sortarazitakoa, besteak beste.

2. Aurreko kargudunen ordainak berrikustea. Benegasek Jaurerriko kontuak aztertzeo prozedura –egokia ala bidegabekoa– gainbegiratu zuten. Kargudun askok atzeratutako sariak jasotzea exijitu zuten.

3. Tokiz tokiko ikuskaritza. Udalerrietatik egindako bisitaldietan neurritz kanpoko ordainak jaso omen zituen. Era berean, bideak konpontzen erabili beharreko isunak zegokien helburua bete ez izana leporatzen zioten ere.

4. Jaurerriak Hiribilduen aurka mantentzen zituen auziak berpiztea. Ekimen hau eraso berria besterik ez zen, auzi asko jarraitzea eskatzen zuena. Honako hauek, besteak beste: eskumenezko mugak zirela kausa Markina, Gernika, Bermeo, Mungia eta Gerrikaitzen kontrakoak, liskar batengatik Bermeoren aurkakoa, pisuaren ondorioz Durangoren kontrakoak, edota burdin birsalmenta eta kaiak konpontzeko ziza zirela medio Bilboren aurkakoa. Atzerritarrek sartutako elikagaiak dirutan kanporatu ahal izateko baimenak izan zituzten Hiribilduen asmoa (43) oztopatzea ere probokaziotzat jo behar du. Izan ere, Hiribilduek Benegasen kontrako ekimen bateratua burutzeko proposamena errefusatu zuten zergo, Lur Lauak neurri guzti haiek hartuz zituen.

5. Konbertituak erbesteratzen foruzaletasuna betetzea. Puntu honetan ere Lur Lauak Hiribilduei elkarrekin joateko eskaintza luzatu

(41) “...el dicho señor Corregidor las tomó en sus manos e comenzó a ler para consigo, y luego las metió en el seno deziendo que Su Merçed probería justiçia en ello, y que no diese a entender a ninguna persona cosa alguna de lo que las dichas Probisiones e Memorial contenían.” VEKA: *Ibid.*

(42) 1560.eko Urtarrilak 16 eta 17ko, urte bereko Abuztuak 14ko eta 1561.eko Maiatzak 10eko Lur Lauko Erregimentuetan azaldutako gaiak dira, aurreko kexetako lekuko edo.

(43) Batik bat Lekeitio jasaten ari zen estualdia kontutan hartuta.

zien, gaiari buruz Foruak gordetzeko begirune handirik erakutsi ez zuten Korrejidorearen aurka indarrak batzeko beste jukutria izan zena, nonbait (44).

Aurreko agintaldiko gehiegikeriak argitzen saiatzen ziren bitartean, Korrejidorearen kontrako iskanbilan inplikaturako zalapartarien aurkako salaketak ere aurrera jarraitu zuen (45). Juan de Aguilarek kanpoan jarduteko batzordeetan akusatutakoek parte har zezaten sarritan gaitzetsi zuen. Baina beraiek halako eginkizunetan ibili ziren agintaldia bukatu arte. Une hartan jadanik sententziak ezagutzen ziren. 1633.eko Otsaileko Batzar Nagusietako gertakizunekin (46) konparatuz gero, ez dirudi dagokigun kasuan oso zigor gogorrek ezarri zitzaizkienik, desakatuaren larritasunari erreparatuz gero. Are gehiago: leuntasun hau lekukotasun faltari ez dago leporatzerik: hala izatekotan, Kantzelaritzakoek aurreko Epailearen zigorrak gutxituko lituzkete (47). Orokorrean, batzuk eta besteen zigorrak antz handikoak izan ziren (Epaile Nagusiak Korrejidorearenak areagotu zituen noizbait). Honek akusatutakoaren delituen larritasuna lekukoaren aitortzetako bezainbatekoa zela erakusten du, nonbait. Erregearen ordezkariaren kontrako gehiegikeri soila eta bereziaren ondoriozko zigorrak, beraz, Koroa eta Jaurreriaren arteko harremanetan mesfidantzarik agertu ez zela. Jaurreriak barne kontraesanak baino ez zituen pairatzen. Gorrotoa ez zen Korrejidorearen gehiegikeri hutsengatik lehertu, erakundeetako talde nagusien arteko oreka ahula arriskuan jar zezakeen bloke baten alde argi eta garbi jotzeagatik baizik, nik uste (48).

#### 4. ZENTSARIAK ETA INFANTZOLAK (1576/82)

Hiribilduetako jatorria zuten kargudunak izatea Gobernuan Lur Lauko aitzinako arazoa zen. 1542.eko hauteskundeetan San Juan de Mugaguren Sindiko eta Juan Pérez de Mármex Idazkari izendatu zituzten, zailtasunik izanda ere. Dena dela, karguak hartu zituztela, aurrerantzean Hiribilduko auzokiderik Lur Lauko Gobernuko karguak betetzeko debekua indarrean sartu zen (49). 1566.eko Maiatzak 7ko Lur Lauko Erregimentuetan, bi Erregidore berri hautatzen zirela apro-

(44) Garai hartan Hiribilduek zein Lur Lauak legaltasuna bete zedin eskatzen zuten. 1560.eko Irailak 1eko Batzar Nagusietan Juan de Aguilarek aldeko autoa ezagutarazi zuen. Bileran hartako partaideek behartuta egin zuenentz ez dakit, baina 1561.eko Otsailak 27ko beste auto batek aurrekoa baliogabetu zuen. Azkeneko honek geroago Korrejidorearen kontrako epaiketa eragin zuen.

(45) Eranskina: 2. Agiria. Korrejidorea eta Epaile Nagusiaren zigorrak.

(46) M. ZABALA MONTROYAn (2001: 251-364) aztertu nituen.

(47) Kontrabandoari buruzko kasuetan, esate baterako, hala gertatzen omen zen sarritan.

(48) Garaiko beste Korrejidore batzuen erresidentziek, non gehiegikeri desberdinak zilegitzat jo zituzten edota, gutxienez, eskuzabaltasunez aztertu ziren, beti ere erakunde mailako *statu quo* delakoa errespetatuz gero, horixe erakusten dute. Ik. SAO: EK: 236. PS, 9. znbk. eta atal bereko 246. PS, 4. znbk.

(49) VEKA: BE: 2. PS, 4. znbk. eta atal bereko 4. PS, 1. znbk.

betxatuz, Hiribilduetako auzokideei Jaurreriko kargurik betetzeko debekua berritu zitzaien.

Dena dela, eztabaida 1576.eko Uztailak 31ko Batzar Nagusietako erabaki anbiguoaren ondoren hasi zen. Izan ere, Abuztuak 21eko Erregimentu Orokorretan Hiribilduetako auzokideak ez ezik, zentsariak ere karguetatik kanpo baztertu ziren. Debekua justifikatzeko arrazoia zentsariak petxak ordaintzea zen. Gainera, zentsariak Hiribilduetako biztanleekin berdintzen ziren, era maltzurraz, erakundeetako bikoiztasunaren aitzakiari eutsiz.

Busturia eta Zornotzako Merinaldeetako zentsari talde baten protesta berehalakoa izan zen. Haien kontra erabilitako argumentuak bertan behera utzi zituzten (beraiek ere Jaurreriko zergak ordaintzen zituztelako) eta aurrez Gobernuan eta Elizateetako karguetan parte hartu zutela egiaztatu zuten: Lope de Mendieta eta Juan de Albiz Erregidore eta Diruzain izan ziren; Rodrigo Martínez de Albiz eta San Juan de Solaren Erregidore izendatu zuten; Ochoa Ortiz de Olaetak eta Hernando de Arguenak Diruzaintza bete zuten; etab.

Azkenik, salatariek aldeko sententzia lortu zuten Kantzelaritzan, auzi luzea izan ondoren. Handik aurrera kargu publikoak bete ahal izango zuten, Gernikan auzatu arren (50).

Gatazka hau, azken batez, nekazal eta hirietako eremuen elkarren aurkako liskarren beste adierazpide bat baino ez zen G. MONREALek arrazoi osoz ohartarazi zuen bezala (51). Bi legeri kontrajarriren arteko enfrentamendua agerian gelditu zen berriz ere. Toki berean bizitzeak, infantzoiaren jardunbide berberak izateak eta elkarte bien integrazioa bermatzen zuen sententzia goiztiarrak (Hiribilduekin gertatu ez zena) barne tira-birak eta kontraesanak eragin zituzten. Azpizjokoen bidez Gobernuetako karguetatik kanporatzen saiatu ziren, legaltasunez burutzeko ezintasuna zela medio. Izan ere, Jaurreriko erakundeetan aipatutako aurkakotasuna ezkatutata egon arren, tokiko karguetara bideratu zen. Bertan, Bizkaiko Gobernuan ez bezala, auzatutako guztiak sarritan alboratu ziren karguetatik (nekazal Udalerrietan –Ereño, esaterako– edota Hiribilduetan ere –Gernikan, adibidez) (52).

### 5.1. Krisialdiaren hasier a

XVI. mendeko amaieran Bizkaiko Jaurreriko krisialdirik larriena lehertu zen. Erakundeetako jarraikortasuna bera kolokan ipini zen,

### 5. 1590/95 URTEETAK O KRISIALDIA ERAKUNDEETAN

(50) 1577.eko Urtarrilak 20ko Erregimentu Orokorretan Aldundiak ezarritako Ordenantza eraldatu zuten eta debekua Hiribilduetako biztanleei mugatu zitzaien. 1582.eko Martxoak 27ko Errege Eginkizuna E.J. LABAYRU Y GOICOECHEAK (1900: IV, 808-817) argitaratu eman zuten.

(51) G. MONREAL CIA (1974: 433).

(52) Honek ez du esan nahi Jaurreriko erakundeetatik guztiz desagertu zenik. 1609.eko Ekainak 14ko Erregimentu Orokorretan Mañaria Udalerriko zentsarien kaparetasuna onartzen ez zuen Juan de Echabururen aurkako Kantzelaritzako auzian Jaurreriak lagun ziezaien blokeen arteko akordioaren aldeko testuinguruaz baliatzen saiatu zen.

Hiribilduak behin betiko banaketa gauzatzear egon zirelako. Estualdi hartan aurrez ezagunak ziren eragile batzuk hartu zuten parte. Lehenik eta behin, erakundeetako partaide desberdinen arteko zatiketa (53). Lur Lauan tira-bira haiek bandoetara bideratu ziren berriz ere. Halako hartan, gainera, blokeen arteko integrazio prozesuaren aurreko jarrera desberdinetan gauzatu ziren. Aurreko guztiari amorruta piztu eta partaideen arteko zenbait aliantza eraldatu zuten beste eragile puntual batzuk ere gehitu zitzaizkion: Erregearen ordezkari nagusienaren jukutriak –aspalditik ezagunak ziren halakoek ekar zitzaizketen ondorioak– edota marinelen eskakizunen bidezko zergak areagotzea (54), besteak beste.

1590.eko Abuztuak 31ko Erregimentu Orokorretan hasi zen krisialdia. Deialdiak berak (55) bi taldeen arteko zatiketa eragin zuen. Kargudun guztien erdiak –oinaztar guztiak, Juan Ochoa de Mauraza izan ezik (56), eta Lope Martínez de la Rentería ganboatarrak– Lur Lauko kideak beraien kabuz batzea eskatu zuen. Sindiko ganboatarra zen Pedro Ruiz de Ibarak aurkakotasuna agertu arren, Duarte de Acuña Korrejidoreak aipatutako eskabidea onartu zuen eta Hiribilduetako ahaldunei irteteko agindu zien. Honek Lur Lauko gainerako kargudunak ere joatea eragin zuen, ezadostasunaren adierazgarri modura. Dena dela, hurrengo egunean Erregimentuek jarraitu zuten berrito, eztabaidagaia aholkulari militarra izan zela. Gehiengoa kanpoko aholkularien alde azaldu omen zen (57).

Baina erabaki hura Juan Gómez de Butrónen oniritzia jaso ez zenez gero, honek Domingo Ortiz de Arana Ahalduen Nagusi ganboatarra salatu zuen Gerra Kontseiluan. Ahalduaren alde Pedro Ruiz de Ibarra azaldu zen halako prozedura foruzaletasunaren kontrakoa zela argitzeko (bizkaitarren lehen instantziako auziak lurraldetik ateratzerik ez zeuden eta) (58).

(53) Erakundeetako desorekak areagotu ziren denboraren poderioz. Hiribildu batzuk eskumenak edota baliabideetako kontrola zirela kausa inguruetakoa lurraldeen aurka mantentzen zituzten enfrontamenduak ez ezik, lurralde guztietara zabalduetako beste auzi batzuk ere bazeuden.

(54) Honen ondorioz, Juan Alonso de Butrón y Múxicaren aginduz, Juan Ochoa de Mauraza Sindikoa eta San Juan de Munitiz Erregidorea espetxeratu zuten, haren kontrako jarreragatik. Era berean, beste gai eztabaidagarriak ere baziren garai hartan, adibidez, auzotasunezko egiaztagierietako auzia (ildo beretik, Nieto Lizentziatu konbertituaren kanporaketa jokoan zegoen).

(55) Sindikoak eta Durangaldeko Herenak deituta. Amorruta nagusia zela, giroa lasaitzeko ahaleginak izan ziren. Izan ere, lehenastunagatik ohiko aurkakotasunik ekiditeko Durangaldeko Merinaldeko eta Enkarterrietako ahalduak Jaurreko zortzi Erregidoreen azpitik eta beste lauren gaineratik jesartzeko agindua izan zen. Edozelan ere, horrek ez zuten baztertu ahal izan Lur Lau eta Hiribilduen arteko diferentzia handiak.

(56) Diego de Iruixa Erregidorea ez zen Erregimentu haietan azaldu.

(57) 1590.eko Irailak 2ko Erregimentu Orokorrak.

(58) F. DE SAGARMÍNAGAK (1892: I, 96-97) gertakizun haiek “arbitrariedad y atropello” izan zirela uste zuen. Bere ustez, horren arrazoia zera zen: “la absorción y concentración en la Corona real de las facultades de los antiguos organismos de las regiones”. Azkenik, Juan Gómez de Butróni zegokionez, “por lo visto ponía más empeño en el servicio del Rey que en la conservación de los Fueros.”

Gertatutakoa ikusita, lehiakideek zatiketari eutsi zioten. Handik aurrera Erregimentu Partikularretan baino ez ziren bilduko. Bestalde, banaketak aurkakotasun berria erakarri zuen, Hiribilduek Jaurreriko armak irudikatzen zituen zigilua erabiltzea erabaki zutelako (59). Portaera honek Jaurreriko jarraikortasuna kolokan jar zezakeen. Baina arerioek erronkari eutsi zioten eta blokeen arteko tira-birak larriagotuz joan ziren, handik gutxira adierazpiderik nabarmenenak izan arte (60).

Hiribilduek iragarritako banaketa ez zuten momentuz bete, gai ezatsegina zen Erregeak bidalitako marinelen eskakizun berria aztertzeko beraien partaidetza beharrezkoa izateagatik. Behin-behinekoa izanda ere, oinaztarrek amore eman zuten eta 1591.eko Urtarrilean Ahalduinak eta Herenetako ordezkariak elkarrekin bildu ziren Bertendona Jeneralarentzako marinelen zerbitzuari buruz hitz egiteko asmoz (61). Lur Lauak ustezko jarrera bakezaleak erakutsi zituen marineletako gai ezeroso hartan Hiribilduen irizpidea eraldatzeko. Izan ere, atzerritarrek burdineta pleitak dirutan ateratzeko baimena adostu zen eta Bilboko Kotsuletxeak Portugaleteko Prebostearen aurka mantentzen zuen auzia Jaurreriak bere gain hartzeko balizko konpromezua egon zen. Baina eskatutako marinela alizatzeko Juan Alonso de Butrón y Múxica izendatu zutela jakin bezain laster jarre-  
rak eraldatzeko ahalegin guzti haiek bertan behera gelditu eta aurreko tentsioak itzuli ziren.

Sindikio biak Erregearen izendapenaren aurka agertu ziren. Haien iritziz, marinelen zerbitzua bere gain nork hartuko zuen Jaurreriak eta Korrejidoreak erabaki behar zuten, Gortera ordezkariaren bat bidaliz horren berri eman zezan. Ezadostasunak bileran azaleratu ziren eta izendapena baliogabetzeko ordezkaria igortzearen komenigarritasuna bozkatu zuten (62). Sindikioek proposatutakoaren aldeko emaitzak izan ziren, Ahaldu Nagusi oinaztarrak, bost Erregidorek (lau oinaztarrak eta ganboatar batek) (63) eta kostaldeko Hiribilduek (64) baino ez ziotelako botoa emateari muzin egin. Azkeneko hauek irizpidea hurrengo Erregimentuetarako idatziz ekarriko zutela zioten. Baina begien bistako porrota saihesteko aitzaki hutsa besterik ez zen hura. Jarraian kargudun oinaztarrek Lur Lauko bilera eskatu zuten, Hiribilduek berriz ere marinelen zerbitzua Alonso de Butrón y Múxicak bete zezan galdatzen zuten bitartean. Halako jokabidea marinelen zerbitzu guztiak oso-osorik jasan beharreko portuek ez

(59) 1590.eko Irailak 6ko Hiribilduetako Erregimentuak.

(60) Hiribilduek zigilua izateko asmoa ez zen berria. Izan ere, 1578.eko Irailak 12 eta 14 bitarteko Erregimentu Orokorretan azaleratu zen, nahiz eta azkenik proposamenak aurrera ez egin. Hiribilduetako Sindikioa izendatzekoa ere bilera beran aztertu zen.

(61) 1591.eko Urtarrilak 27 eta 28ko Erregimentu Orokorrak.

(62) D. AREITIO Y F. SAGARMÍNAGA (1928: 121).

(63) Diego de Iruixa eta Juan González de Urasandi beste bi Erregidore oinaztarren botoak ez dira agertzen. Erregidore ganboatarra Lope Martínez de la Rentería izan zen.

(64) Hauekin batera ere Errigoiti azaldu zen.

zuten izan Butrón y Múxicaren interesak defendatzeagatik, beraienak baizik. Izan ere, zerbitzuak biderkatu ahal izateko Jaurerri osotik hornituko zen marinelen eskola eratzeko planak –Juan Alonso de Butrón y Múxicaren asmoa zena–, portuen onespina zuen, zama hura era orekatuago batez banatzeko. Jakina, egitasmoak Jaurerriko gainerako Udalerrien erabateko errefusapena jaso zuen, halako zergak ordaintzen laguntzeko prest ez zeuden eta (65). Gai honek Hiribilduak aldeko blokearen estrategia politiko nagusienetatik urrundu zituen luzaro, ekimen bateraturik baliogabetu zela.

Aurkakoei gehiengoaren erabakiak ez onartzea leporatzen zieten kargudun ganboatarrek protestatu arren, Korrejidoreak ez zuen ordezkariaren izendapena onartu eta bi aldeak isilarazi zituen auziari buruzko erabakiren bat hartu arte. Baina halako nagusikeriaren aurrean, Sindikoek autoa hel egin zuten, Martín de Abendaño ordezkari izendatu zela.

Edozelan ere, aurkariak berehala adiskidetu ziren berriro. Ganboatarrek Butrón y Múxica baztertzeko balizko interesagatik edota, agian, Korrejidoreak blokeen arteko behin betiko zatiketaren beldurraz, Gómez de la Puertak hasierako jarrera eraldatu zuen, ganboatarrengan portaera ulerkorrago agerian utziz. Egia esan, haiek ere marinelen zerbitzuari buruzko eskaintza luzatu zioten; honen arabera ikuskaritza eta menpekoen izendapena Korrejidorearen eskuetan geldituko zen. Handik gutxira Gómez de la Puertak Juan Ochoa de Mauraza Sindikoak eta Juan de Munitiz Erregidoreak 1589. urtean Juan Alonso de Butrón y Múxicaren kontrako auzietako kalte-ordainak kobratzeko autoa ezagutarazi zuen. Gainera, Jaurerriak Domingo Ochoa de Aranak oraindik zuen auzia bere gain hartu zuen (66). Guzti horrek oinaztar eta Hiribildu batzuen amorrua piztu zuen eta Hiribilduak bileratik irten zitezen exijitu zuten, baina Korrejidoreak ez zuen onartu.

Aldi berean, Hiribilduek presioa areagotu zuten, beraien Sindikoa izendatzea proposatu, Jaurerriko izendapena bera eta gastu orokorretako kontribuzioak eraldatzea exijitu eta Gorteko ordezkaria izatea ontzat eman zutela (67).

Bi urtetako epemuga bete bezain laster Uribeko Merinaldeko Elizate oinaztar batzuk (68) lehenbailehen hauteskunde berriak ospatzea eskatu zuten, 1549.eko Errege Eginkizunaren arabera edo (69). Udalerri ganboatarrek berehala egin zioten aurre (70) erronkari

(65) Gómez de la Puerta Korrejidoreak Domingo Ortiz de Arana eta bere jarraitzaileak zeragatik salatu zituen Gerra Kontseiluan: “que havían querido impedir la leva de marineros”. SAO: AG: 424. PS.

(66) 1591.eko Apirilak 27ko Erregimentu Orokorrak.

(67) 1591.eko Apirilak 30eko Hiribilduetako Erregimentuak.

(68) Erandio, Getxo, Urduliz, Laukiz, Bakio, Berango, Gatika, Lemoiz, Gorliz, Leioa eta Barrika.

(69) VEKA: BE: 808. PS, 8. znbk. Eskakizuna 1591.eko Uztailak 1ean aurkeztu eta Batzar Nagusietako deialdia Uztailak 9an egitea eskatu zuten.

(70) Hogeita lau Udalerri ganboatarrek 1591.eko Uztailak 4an luzatutako eskakizuna.

eta, une hartan hauteskunde berriak deitzea ezegokitzat hartzeaz gain, Gobernuak zituen auziak konpondu bitartean ez zirela komeni adierazi zuten. Bestalde, noizbait Gobernuek hiru urtetik gora iraun zutela gogorarazi zuten. Hasiera batetan, Gómez de la Puertak Batzar Nagusietako deialdia onartu zuen; baina geroago, Sindikoeek kontrako Errege Probisioa eskuratu zuten. Horrexegatik, 1591.eko Abuztuak 27an ahaldun ugari bildu zela Gernikan, Korrejidorea ez zela azaldu egiaztatu ahal izan zuten lekukoez. Hala ere, baten bat baino gehiagok ez zuen ezustean harrapatu, nik uste. Jarraian ahaldun haiek Kantzelaritzara zuzendutako salaketa sinatu zuten Arbolan bertan (71). Jukutria haren helburua denbora irabaztea zen, nonbait (ganboatarren arrazoiak funtsa handirik gabekoak ziren). Dena dela, ez zuten gehiegi lortu.

Tentsio handiko giro hartan bildu ziren kargudun berriak hautatzeko Batzar Nagusiak (72). Hainbat Elizatetan aurrez izandako eztabaidak bertan errepikatu ziren, bidalitako ahaldunen arteko ezadostasunak zirela medio (73). Baina Udalerrri gehienek zegokien bandoaren aldeko irizpidea erakutsi omen zuten (74). Estualdi hartan hautesleek Ahaldun Nagusi biak izateko ahaide nagusien leinuetako kideak hautatu zituzten –aho batez, gainera–, aldez aurretik sekula gertatu ez omen zena.

## 5.2. Banatzeko zorian

Gobernu berriak arazoak konpondu ez eta aurreko zatiketa eta ezadostasunak luzatu zituen, itxuraz Jaurerria konponbiderik gabeko krisialdian murgildu zela. Gobernua agintaldia hasi eta handik gutxira, 1591.eko Azaroak 29an, kargudun ganboatarrek, hamahiru Hiribilduren laguntzarekin, Gómez de la Puertari beharrezkoak izango ziren aldi guztietan Erregimentu Orokorrek deitzeko eskakizuna

1630. urteko Udalerrri oinaztar eta ganboatarren zerrendaren arabera, Udalerrri guztien arteko oinaztar bakarra Nabarriz dugu. Baina kasu hartan bi ordezkarien arteko ezadostasuna izan zen.

(71) Hogeita hamabost Udalerrri oinaztarrek sinatu zuten. Ganboatarren artean Gamizek, Arbatzegik eta Ereñok baino ez zuten onartu; baina azkeneko honetan ere ezadostasuna egon zen ordezkarien artean.

(72) Udalerrri ganboatarrek deialdia aprobetxatu zuten oinaztarren aurrean Korrejidoreari Domingo Ortiz de Aranaren kontrako auzia Gerra Kontseilura bidal ez zezan eskatzeko –Juan Alonso de Butrón y Múxicaren azpijokoa izan zela argudiatu zuten. Halako hartan, Gomez de la Puerta ez zen erabakirik hartzera ausartu.

(73) Hala gertatu zen Ereño, Nabarriz, Gizaburuaga, Mendexa, Arbatzegi eta Etxanoren kasuetan.

(74) Ondorengo eskakizunaren sinatzaile eta 1630. urteko bandoetako zerrendaren artean aldaketa hauek baino ez daude: Gizaburuaga, Mendexa, Etxano, Gamiz, Mungia eta Arantzazu –bide batez esanda: hauetariko hirutan ahalmenak ematen ez zen akordioak izan. Jakina, geroago bi bandoen artean txandakatzearen alde azalduko ziren Udalerrri batzuk dagokigun kasuan ere zalantzak izan zituzten.

(75) Hiribilduen artean Bermeok, Durangok, Lekeitiok, Ermuak, Plentziak eta Errigoitik ez zirela joango adierazi zuten. Dena dela, bilbotar batzuk maltzurkerietan ibili ziren egoera hura beraien mesedetarako aprobetxatzeko asmoz. Pedro de Villarreal, esate baterako, Ermuaren izenean agertu zen 1592.eko Ekainak 30eko Erregimentu Orokorretan.



luzatu zioten. Beraien ustez, horren kontra zihonan talde oinaztarraren asmoak, usadioaren aurkakoa izateaz gain, Jaurerri osoa kaltetzen zuelako. Era berean, oinaztarren jarrera mantenduz gero, osatzen zuten gehiengoari esker beraien kabuz hartutako akordioak indarrean sartuko zituztela ohartarazi zuten. Erregimentu Orokorrak egun berean bildu ziren, aurkariak joateari uko egin bazioten ere (75).

Hurrengo egunean partaideek bertaratu ez zirenekiko behin betiko banaketa finkatu zuten, gehiengoak eskatuz gero, nahitaez Erregimentu Orokorrak deitzeko beharra erabaki zutela (76).

Era berean, Hiribilduen arteko enfrontamenduak ere larriagotu ziren, 1591.eko Abenduak 3ko Hiribilduen Erregimentuetan agerian gelditu zen bezala. Izan ere, hasieran eserlekuak banatzen Bermeo eta Bilboko ordezkariak lehentasuna exijitu zuten. Ezadostasunak bileran zehar luzatu ziren, aurreko Erregimentu Orokorren aurka agertutako zenbait Hiribilduren (77) jarreragatik edota Martín de Abendañoren ordezkapen eztabaidagarria zela kausa.

Etenaldia sei hilabetez luzatu zen. Tarte horretan ez omen ziren Erregimentu Orokorrak bildu (ezta Partikularrak ere, nonbait). Batu ziren hurrengo aldian, bi taldeak bertaratu ziren aurreko irizpideak berritzeko (78). Gómez de la Puertak, bitartekaritza lanetarako ezgaitasuna erakutsiz, aurrekoaren 1590.eko Abuztuak 31ko autoa berretsi zuen. Erabaki horrek kargudun ganboatarren (79) protesta eragin zuen, behin berriro, nahiz eta halako hartan bileraren bukaera ez erakarri. Bando ganboatarrak jokabidea aldatu eta, batzarrak oztopatu ezean, salaketa Kantzelaritzara eraman zuen.

Ondorengo egunetan Erregimentu Orokor gehiago ospatu ziren, non Hiribilduen aurkako hainbat neurri erasotzaile hartu ziren. Hona hemen horietako batzuk: Jaurerriko kargudunik hautatzeko bertakoa izateko beharra, Meategietako Ikuskariaren izendapena, Hiribilduetako eskumenen murrizketa edota, legezkoak ez omen ziren zergak kobratzeagatik Bermeo eta Portugaite auziperatzea (80). Dena dela, ganboatarrak Bizkaiko marinela elkarrekin eta bertakoen agintarien esanetara joateko eta soldatak ordaintzeko eskakizuna Erregeari luzatu bezain laster Erregimentu haiek bertan behera gelditu ziren, aipatutako bandoko kideek eta hainbat Hiribilduk Korrejidorearen azkeneko autoaren helegitea zela medio. Hurrengo bilera erakunde mailako urtebete erdiko geldiunearen ostean izan zen, Kantzelaritzaren ebazpenaren ondorioz eta oinaztarren partaidetzarik gabe (81).

(76) Ik. VEKA: BE: 1364. PS, 11. znbk.

(77) Bermeo, Durango, Gernika, Lekeitio, Plentzia, Markina eta Ermua.

(78) 1592.eko Ekainak 30eko Erregimentu Orokorrak. Mungia eta Gerrikaitzeko ahal-dunak baino ez ziren falta izan.

(79) Bertan egon arren, Martín de Ibanarriaga Erregidorearen irizpidea ez da agertzen. Martín Saez de Lexarza geroago etorri zen bat protestarekin.

(80) 1592.eko Ekainak 30 eta Uztailak 7 bitarteko Erregimentu Orokorrak.

(81) 1593.eko Otsailak 18ko Lur Lauko Erregimentuak.

Lur Lauak akordio haiek aurrera ateratzen zituen bitartean, Hiribilduek beste horrenbeste egin zuten, Meategietako Ikuskaria izendatuz, Alkateen eskumenak berretsiz edota nekazal blokearengandik banatzkoa zen Olalde Lizentziatua Hiribilduetako Sindikoa hautatuz (82).

Ganboatarrek Epaille Nagusia zen Hernan Rodriguez Doktoarearen aldeko sententzia lortu zuten. Bertan 1590.eko Abuztuak 31ko eta 1592.eko Ekainak 30eko autoak baliogabetu ziren, Erregimentu Orokorrek ospatzea baimentzen zuen 1590.eko Azaroak 29koa berretsi zela (83). Bitxia ematen badu ere, lehenago legez kanpo ibilitako Ahaldun Nagusi eta Sindiko oinaztarrak ziren Juan Gómez de Butrónek eta Lucas de Bergarak berehala hel egin zuten sententzia hura Kantzelaritzako Presidente eta Entzuleen aurrean, nahiz eta handik gutxira –sententzia jakinarazi aurretik– biek epaimahai bera baztertu, Errege Kontseiluaren Entzutegira jotzeko.

Sententziaren jakinarazpena jaso eta gero, Korrejidoreak bi taldeak batu zituen urteko lehenbiziko Erregimentuetan. Hala ere, ezadostasunak ez ziren bertan behera gelditu xedapen haren ondorioz. Aurkakotasuna blokeen arteko harremanetan ikuspuntu desberdinen adierazlea zen. Izan ere, ganboatarrek garai hartan Hiribilduekin elkar ulertzearen aldekoak ziren, oinaztarrek erakundeetako bikoiztasuna defendatzen zuten bitartean. Azkeneko hauek lehenago Erregimentu Partikularrak ospatu nahi zituzten, geroago guztien intereseko gaiak komunean eztabaidatzeko: Ganboatarrek, berriz, alderantziz: lehenago elkarrekiko Erregimentu Orokorrek eta ondoren, banatutako bileretan, talde bakoitzari zegozkion gaiak.

1593.eko Martxoak 30ean honako akordio honetara iritsi zen. Lehenbiziko jakinarazpena Herenetako ordezkariari luzatuko zitzairen, berauek –gainerako Hiribilduei iragarri ondoren– deialdiaren komenigarritasunari buruz eztabaidatu eta gero, erabakia hartuko zuten (akordioak Herenetako bizpahiru ordezkariaren oniritzia besterik ez zuen lortu behar izango). Erregimentu Orokorretako goizeko saioan Lur Lauko gaiak landuko ziren, arratsaldean Hiribilduetakoak aztertzeko, eta, azkenik, guztien arteko gai komunak (84).

#### 5.4. Ezadostasunak luzatu zirenekoa

Aurreko akordioak garrantzi handikoa ematen badu ere (are gehiago Korrejidorearen agintaldia luzatzeko berehalako eskakizuna kontutan hartuz gero (85), Gómez de la Puertak geroago aditzera eman nahi izan zuen bezala), ez zen benetako konponbiderik izan eta han-

(82) 1592.eko Uztailaren 4ko Hiribilduetako Erregimentuak.

(83) 1593.eko Martxoak 15eko sententzia.

(84) F. SAGARMÍNAGA (1892: I, 131). Azkeneko bi Korrejidorek eta Epaille Nagusiak ezagutarazitako gai honi buruzko autoetan ez ziren honelako prozedurazko xehetasunak aipatu. Hala ere, blokeen arteko batuketa proposatzera ez ziren heldu.

(85) 1593.eko Apirilak 1eko Erregimentu Orokorrek.

dik aurrera blokeen arteko tira-birak beste alorretara bideratu ziren. Akordioari esker Erregimentuetan lehiakideek eskakizunak askatasun handiagoz aurkeztu ahal izan zituzten, nonbait; baina hitzarmenak ez zuen inola ere gatazkaren bukaera erakarri. Batzuk amore ematea etsaiaren garaipentzat jotzen zuten. Apirilaren 2an Pantaleón de Sarabia Doktorea Hiribilduetako Legegizon izendatzea akordioak jasandako lehenetariko zartada ikusgarria izan zen.

Abuztuan bandoen arteko tira-birak berpiztu ziren marinelei buruzko eskutitzak heltzean. Juan Gómez de Butrónek eta Lucas de Bergarak ireki ahal izateko bilera deitzea eskatu zuten bitartean, Abendañok, berriz, halako deialdiak ezerosoak izan zitezkeelakoan, berehala irakurtzea proposatu zuen, Korrejidorearen oniritzia jasoz. Butrón y Múxicak Batzar Nagusiak benetan deitu ala bere interesak galtzaile ateratako gaiaren azterketa maltzurkerietan oztopatu nahi zuten, egia esan, ez dakit.

Hurrengo Batzar Nagusiak Gobernua berritzeko asmoz deitu zituzten, agintaldia bukatu eta berehala. Bertan aurkako taldeek tinko eutsi omen zieten beraien jarrerari, Ahaldun Nagusiak aho batez hautetsi zituzten eta. Dena dela, irregulartasunak ere izan ei ziren Hiribilduetako hautagairik proposatzen, baina Korrejidoreak haietako batzuk onartu zituen karguetan, protestak izanda ere (86).

Agintaldi berria hasi bezain pronto bi blokeen elkarren kontrako tira-birak larriagotu ziren, San Juan de Munitiz Sindiko ganboatarraren eskariz –eta Korrejidorearen aldeko autoaren bidez– bileratik Hiribilduetako Sindikoa kanporatzeagatik. Gertakizunaren ondorioz, Hiribilduetako ordezkariak ere irten ziren handik jarraian (87). Geroago Hiribilduen aurkako hainbat ekimen burutu ziren. Batzuen ustez, blokeen artean izandako hurbilketa gehiegizkoa izateagatik –Hiribilduetako kargudunen izendapenez, nonbait– edota, agian, agintaldi berriagatik, Gobernuak Hiribilduak eraso zituen behin berriro.

Hiribilduek ere beste horrenbeste egin zuten. Sindikoaren auzia eta Jaurerriko gastu orokorra bere gain hartu zituzten, eta ahaide nagusiak edota haien menpekoak bileretan agertzea debekatzeko ekimena hasi zuten (88).

Bitartean, Erregimentuak batera edo banatuta egin behar ziren erabakitzeke auziak aurrera jarraitzen zuen, Gobernu aldaketak irizpi-deak eraldatu ez zituela. Oinaztarren argumentuak honako hauek ziren. Lehenik, hauteskunde eta bilerak egiteko arauak finkatzen zituen 1549.eko Errege Eginkizuna (89). Horrez gain, bandoen arteko berdintasuna desoreka zitekeen Hiribilduen laguntza zuen talde gan-

(86) Hernando Bulluqua, Matía de Gana eta Pedro de Ansoleaga Erregidore eta Sindiko oinaztarrak; edota Martín de Monesterio eta Rodrigo de Solarte eskribauak. Hauetariko batzuk balio gabetu ez izana deigarria da oso.

(87) 1594.eko Otsailak 28ko Erregimentu Orokorrak.

(88) 1594.eko Martxoak 3ko Hiribilduetako Erregimentuak.

(89) Bi bandoen arteko oreka eskatzen zuten. Halako hartan oinaztarrek, aurkariak baino aldeko Elizate kopuru handiagoa zutenez gero, kargudunak erdi bana hautatzea onartu behar izan zuten. Funtsa handirik gabekoa zen argumentu hura, nik uste.

boatarraren alde. Hala ere, aurreko arrazoibideak –ustez– benetakoak izanda ere, beste batzuk oinarri sendorik gabekoak ziren, Kantzelaritzako Bizkaiko Entzutegiaren kaltean Errege Kontseiluaren eskumenen defentsa, esaterako. Oinaztarren ordezkaria zen Gonzalo Rodriguezen arabera, Epaille Nagusiari partikularren elkarren kontrako auziak baino ez zegozkion, aginpide mailako entzutegia Errege Kontseilua zela.

Gobernu ganboatarraren iritziz, berriz, auzia Kantzelaritzari zegokion, non Presidente eta Entzuleen epaimahaiak ebatzi behar izango zuen. Era berean, Hiribilduek eta Lur Lauak guztien intereseko gaiak azter zitzaten elkarrekin biltzeko ohitura zaharra defendatu zuen.

Edozelan ere, Errege Kontseiluak autoa gorde zuen (90). Jokabide hori legeztatuta ez egon arren (izan ere, Bizkaiko Foru Berrian Kantzelaritzako Presidente eta Entzuleen sententziak hel egiteko bestelako epaimahairik ez da aipatzen), noizbait beste horrenbeste gertatu zen gai politikoei buruzko larrialditan.

Talde oinaztarrak auzia bukatu bitartean Korrejidoreak Erregimentu Orokorrak ez deitzeko aldeko Errege Probisioa lortu zuen. Hari esker, denbora irabazi ahal izango zuen, hau da, denbora galaraziko zuen, helburua bilera orokorrak oztopatzea zen eta. Halako jarrerak Korrejidorearen berehalako erantzuna jaso eta Antonio de Urdaibay Ahaldu Nagusia espetxeratu zuen (91). Gómez de la Puertaren existentzia berria, oinaztarren irizpideak Erregimentu Orokorretan soilik entzutekoa, alegia, konponbiderik gabeko buruhauste bilakatu zen.

Dena dela, Korrejidorearen eragina alferrikakoa izan omen zen, hurrengo Erregimentuetan Lur Lauko ordezkariak bakarrik bildu zirelako. Izan ere, Lur Laua bertaratu zen behin betiko zatiketaren beldurrez edo. Erregimentu haietan San Juan de Munitizek neurri bakezale batzuk proposatu zituen. Alde batetik, Sindikoeak Herenetako ordezkariari luzatutako jakinarazpenaren bidez Erregimentu Orokorrak deitzeko prozedura, 1593.eko Martxoak 30eko akordioak arautzen zuena, baliogabetu zen. Era berean, Hiribilduetako ziguiluari buruzko auzia azaleratu zen berrito (92). Baina Erregimentuak zirela kausa bi bandoen artean diferentziak izanda ere, gainerako gaietan –Hiribilduetako Sindiko edota ziguiluari buruzkoa, esaterako– Hiribilduen aurkako adostasuna erabatekoa zen.

Esanak esan, bandoen elkarren kontrako mesfidantzak aipatutako gaietara buruzko akordioa oztopatu zuen. Izan ere, oinaztarrek Hiribilduetako Sindikoari buruzko auzia jarrai zezan San Juan de Munitiz Sindiko ganboatarra ahalbidetzeko proposamena protestatu zuten, honek amaitu gabeko kausak bazituela argudiatuz. Baina eragozleak ez ziren halakorik egiteko aipatutako auzia

(90) MAHN: DK: 28328. PS, 9. znbk.

(91) 1594.eko Martxoak 3ko autoa. Batzuen iritziz, kartzela zigorra Ahaldu Nagusiari Korrejidore berria eskatzeagatik izan zen. VEKA: BE: 1364. PS, 11. znbk.

(92) F. SAGARMÍNAGA (1892: I, 139-140).

Munitizek, Sindiko modura, Jaurerriko karguetako izendapenetan izandako ustezko irregulartasunak zirela medio, haietariko batzuen kontra jarraitzen zuena izateagatik (93).

Aldi berean, bestelako protestak agertzen hasi ziren (meha esportatzaileak ez zigortzearren edota hileta elizkizunengatik), geroago erakutsiko zen bezala, Gómez de la Puerta Korrejidorearen kontra zuzendutakoak (94).

#### **5.4. Krisialdiaren adierazpidea: Gómez de la Puertaren erresi - dentzia**

Gómez de la Puerta Korrejidorearen erresidentzia (95) ezohizko aukera izan zen aurreko urteetako enfrontamenduek, ikusgarriek eta ezkutukoek, sortarazitako amorrua asetzeko. Lehenago aztertutako kasuetan ez bezala, dagokigunean Korrejidoreak zenbait gehiegikerietan zuzen-zuzeneko partaidetza izan zuen. Ezustekoetako iturburua izan zen, beraz. Korrejidoreak Bizkaiko politikan izan zituen betekizunak sarritan uste dena baino konplexu eta partzialagoak ziren, nik uste. Gómez de la Puerta bideragarritzat jotzen zuen prozesu politiko eta instituzionalari eusten saiatu zen, bere kargutik eskuragarri izan zituen baliabide guztiak erabiliz. Baina aurreikuspenetako akatsik izan omen zuen, Gernikan egondako azkeneko egunean agintaldi osoko lanaren merituak deuseztatu zitzaizkiolarik. Gehiegizko diruzalekeriak (bidezkoak ez ziren prozeduren bitartez ohi baino mozkin handiagoak jaso zituen) edota, akaso, bere bizimodu eskandalizagariak eragina izan zituen, nonbait. Gómez de la Puertak erresidentzia aurreratzeko egin zituen ahalegin porrokatuak Batzar Nagusi zalapartatsuak aurreikusten zituela pentsatzera narama. Ez zen oker ibili.

1595.eko Urtarrilak 24an, bilera hasi aurretik, Gernikako Arbolaren inguruan talde desberdinen jarraitzaile ugari biltzen joan ziren, zaldiz edota oinez. Pikaz, ezpataz, etab. armatuta, gainera, han gerta zitekeenaren adierazle modura (96).

Batzar Nagusiak hasi eta gero, buruzagi oinaztar batzuk, Juan de Iburguen burua zela, guztien aurrean azkeneko Korrejidorearen agintaldiko laurogei kexa irakurtzen ahalegindu ziren. Berehala, ganboatarrak eta Hiribilduak aurka agertu ziren tinkotasunez, erresidentzia bukatutzat eman zedila exijituz. Oinaztarrek papera irakurri ezinik,

(93) 1594.eko Urriak 23ko Lur Lauko Erregimentuak. Aipatutako kargudunak Matía de Gana, Pedro de Ansoleaga, Martín de Monesterio eta Rodrigo de Solarte ziren, hain zuzen ere. Esan beharra dago, bestalde, Munitizek beste auziren bat ere ba omen zuela: 1585.ean izandako liiskarragatik Mundakaren aurkakoa (VEKA: BE: 1318. PS, 8. znbk. eta, atal bereko, 1342. PS, 2. znbk.). Juan González de Gordoniz Erregidore oinaztarrek bando bereko kideen aurkako botoa eman zuenez gero, azkenik Munitizen izendapena onartu behar izan zuten.

(94) 1594.eko Urriak 25 eta 26ko Lur Lauko Erregimentuak.

(95) SAO: EK: 553. PS (bakarra). Hauxe da gai honi buruzko ondorengo informazioaren iturria, besterik ez ba da zehazten.

(96) Cf. Eranskina: 3. Agiria.

izugarritzko zalaparta lehertu zen. Agintaldia bukatzen ari zenaren aurkako irainak entzun ziren: “bellaco”, “ladrón”, “traidor” edota “morisco”, besteak beste. Bertan erailtzeko mehatxuak eta guztiz izan ziren: batzuk “mueran, mueran los traidores” bota zuten garrasika; besteek “le ahorcasen (97) y quemasen” exijitzen zuten. Mundakako batzuk, azkenik, zera esan omen zuten: “matemos a este Corregidor y su Teniente, aunque nos ayen de aorquar mañana, porque an sido unos grandes vellacos, ladrones”.

Zalpartaren arriskuaren ondorioz, Gómez de la Puertak eta bere laguntzailea zen Casillasek Batzar Nagusietatik hanka egin behar izan zuten. Buruzagi ganboatarren babesari esker egin ahal izan zuten, mindutako oinaztarrek jipoitzen zituztela.

Ezinbesteko salaketa ipini eta gero, 1595.eko Maiatzak 25ean Juan Gallo de Andrada Epaileak zigorrak ezartzen zituen sententzia plazaratu zuen, baina akusatutakoek Errege Kontseiluarengana jo zuten. Epaimahai honen azkeneko erabakiari esker aurreko zigorrak murriztu ziren (98).

*Kantzelaritzak eta Errege Kontseiluak ezarritako zigorrak 1595.eko Urtarrilak 24an izandako Batzar Nagusietako iskanbilei buruzko auzian:*

Akusatutakoak	Kantzelaritzak		Errege Kontseilua	
	Erbestaldia	Isuna	Erbestaldia	Isuna
Ibarguen, Juan	Behin betiko (99)	100.000	6 urtebete (100)	50.000
Ibáñez Aulestia, Juan	-	40.000	-	20.000
Arcentales, Juan (Lizentz.)	-	40.000	-	20.000
Mendecano, Domingo	-	40.000	-	20.000
Echavarría, Hdo. Martínez	Behin betiko	50.000	2 urtebete	30.000
Aguirreche, Ochoa Ruiz	Behin betiko	50.000	2 urtebete	30.000
Ochoa Menigo, Pedro	Behin betiko	50.000	2 urtebete	30.000
Bertendona, Antonio (Lizentz.)	Behin betiko	50.000	2 urtebete	30.000
Busturia, San Juan	Behin betiko	50.000	2 urtebete	30.000
Leusarra, Sancho Díaz	Behin betiko	50.000	2 urtebete	30.000
Aguirreche, Iñigo Saez	Behin betiko	50.000	2 urtebete	30.000
Enbeitia, Juan	Behin betiko	50.000	2 urtebete	30.000

*Iturria:* SAO: EK: 553. PS (bakarra).

*Oharra:* Diru kopuruak marauritan agertzen dira.

Kasu honetako zigorrak 1560. urtekoak baino gogorragoak izan ziren, nahiz eta –ustez– oso antzeko gertakizunak izan. Baina bata eta bestearen artean 1582. urteko Lope de Avellanedaren marinelen egi-

(97) Menpeko taldeei zegokien heriotza-zigor mota zen hura, Korrejidorearen gizarte mailarekin bat ez zetorrena.

(98) 1597.eko Otsailak 20ko sententzia.

(99) Honez gain, galeretan hamabost hilabetez.

(100) Bertan behera, galeretako hamabost hilabeteren truke. Bestalde, Batzar Nagusietara joatea debekatu zioten erresidentzietan.

tasmoa (101) dugu, enfrentamendu bortitzak eragin eta Koroarekiko harremanak okerragotu zituena. Gainera, 1560.eko aurrekaria kontutan har zitekeen, nonbait.

Gernikan Korrejidorearen aurka aurkeztutako kexa guztien artean (102) erakundeetako krisialdiarekin lotzen zutenak nabarmenekoak dira. Izan ere, ganboatarren aldekotasuna zalantzarik gabekoa zen. Buruzagi politiko batzuk Gómez de la Puertarenganako eragin handia izan zuten (103). Guztien artean Pantaleón de Sarabia Doktorea gailendu zen, justizia bere interesetara eraldatu omen zuelako:

“...es público que en todos los negocios en que hera Abogado proveía a gusto del dicho doctor, y aun los negociantes y escrivanos y otras personas preguntavan unos a otros: quien vuestro letrado, porque si no es el doctor Saravia, aunque tengais justicia, no aveis de salir con ella. Y ansí, por tener esta parcialidad, el dicho doctor Saravia en pleitos en que él hera abogado ponía de su letra y mano los membretes de lo que había de proveer el dicho Corregidor, y conforme a ellos sentenciaba y proveía, y aun en algunos injusticia notoria.” (104)

Halako azpijokoa arriskutsua zen oso, Jaurerriko erakundeak kinka larrian zeuden garaian, blokeen arteko bitartekaria izan behar zenak talde baten alde jotzeagatik:

“...que, por la dicha parcialidad, habiendo el dicho doctor traçado y causado pleito entre las Villas y Señorío de la Tierra Llana, sobre la separación y sobre otras causas, el dicho Corregidor favoreció siempre la parte del dicho doctor, y lo que él trazaba e yntentaba siempre lo cumplía y favorecía, de manera que a sido la causa de muchos y grandes pleitos, y aun a sido causa de que las parcialidades que estavan con mucho sosiego y quietud se ayán alterado y puesto en enemistad, de donde se podrían causar y subçeder grandes incombienientes y deservicio a Su Magestad y daños y muertes en esta República y Señorío.” (105)

(101) Cf. MAHN: DK: 2768. L. edota I.A.A. THOMPSON (1981: 234).

(102) Hemen agertzen dira: SAO: EK: 576. PS, 2. znbk.

(103) Aipatutako kutuntasuna ez zen bakarria izan. Lehenik eta behin, Gerra Kontseiluko kide batzuk ere tratu berezia jaso zuten. Armadetako Ikuskatzailea izandako Francisco de Fuica horren adibide argiena dugu. Flandesko merkatarri batzuen eroskerietan bitartekaria izan zela, Alonso Narváez Doktorearen kontrako arma zurizko erasoarekin zerikusirik izan zuenez gero, Korrejidoreak auzia argitzeko ekimena eragotzi zuen. Gertakizun berberetan Gaspar de Villela Armadako Idazkariaren partaidetzak ere jarrera hori eragin zuen. Baina gaien arteko loturarik ere bazegoen: Gaspar de Villelak Hiribilduetako Idazkaritza bete zuen eta. Azkenik, Tomás de Dóndiz legegizonarekiko harremana oso bestelakoa zen. Aipatutakoaren semea Santa Monika komentuko serora bortxatzeaz akusatu zuten eta Gómez de la Puertak berak heriotza-zigorra ezarri zion, baina akusatutakoa ez zen urkatzerik izan, aurrez ihes egin ahal izan zuelako –sententzia hori E.J. LABAYRU Y GOICOECHEAk (1900: IV, 564-566) argitara eman zuen. Korrejidorea Dóndiz abokatua ez baliatu ahal izan zen erresidentziaren egunean.

(104) SAO: EK: 553. PS (bakarra).

(105) SAO: Ibid.

Gómez de la Puertak Sarabia Doktorea lagundu zuen Erregidore izendatutako 1592.eko Abenduko Bilboko Udal hauteskundeetan ere (106). Dena dela, eragina elkarren artekoa omen zen, Pantaleón de Sarabiari Korrejidorearen eroskerietan artekari lanetan izatea lepotatzen ziotelako.

Francisco de Urquiza ere Gómez de la Puertaren begikoa izan zen. Urquizak Hiribilduetako Idazkaritza bete izana adierazgarria da. Era berean, baliabide publikoak bidegabe xahutzeagatik eta Bilboko Udal Erregimentuko bozketetan izandako irregulartasunengatik auziperatu zuten (107).

Martín de Abendano Arandia ere aipatzekoa da, Korrejidoreak justifikapenik gabe aldeko presoak aska zitzen erraztu omen zuen eta.

Guzti honen ondorioz, beraz, Gallo de Andradak ezarritako zigorra, 456.816 marauritako isuna, alegia, arintzat jo beharra dago, nik uste (108). Eta hala izan zen hainbat akusazio ez zirelako onartu, egiaztatzeko modurik ez egotearren. Batzar Nagusietako iskanbilek ere Epailaren irizpidea eragin zezaketen (109). Esanak esan, Sarabia Doktorearen legez kanpoko eragina bezalako delituak oso zigor arinak jaso zuten (aipatutakoa 10.000 marauritako isuna besterik ez) (110).

### 5.5. Krisialdia moteldu zenekoa

Mandojana Zárate Korrejidore berriaren hasierako hilabeteetan aurreko agintaldiko joera luzatu zen. Bandoen azalerako tira-birek ez zuten ezkututzen erakundeetako benetako aurkakotasuna, blokeen elkarren kontrakoa zena, sarritan barne zatiketak egoera nahastu arren. Kantzelaritzatik bidalitako Errege Probisioaren aginduz 1595.eko Martxoak 15ean Erregimentu Orokorrak deitu behar izan ziren. Baina ez zitzaion haietara Hiribilduetako Sindikoa zen Olalde

(106) Are gehiago: Gómez de la Puerta halako maltzurkeriak mantentzen saiatu zen, non-bait. Izan ere, Korrejidore berriaren harrera zela, inolako lotsarik gabe zera esan zion: “conosca V.M. al señor Doctor Saravia, que es uno de los más principales pilares deste Señorío”. SAO: Ibid.

(107) MAHN: DK: 41221. PS.

(108) Gainera, sententziak itxuraz horren larritasunik ez zuten beste delitu batzuk gogortasun handiagoz zigortu zituen, Tomás de Dóndiz abokatuaren semearen gorabeherak edota erakunde erlijiosoren baten aldeko kudeaketak, esaterako.

(109) Oso delitu antzekoak izanik ere, Erregearen ordezkaria izandako Fernando de Sobremazasen erresidentzia bestelakoa izan zen erabat –J. ORTEGA GALINDO DE SALCEDO (1965: 71-73). Azkeneko kasu honetan datu nabarmena dugu: ohi ez bezala, epaimahairik gorenak, hau da Errege Kontseiluak, akusatutakoaren zigorra areagotu zuen. Ik. BFAA: UA: Bilbo, SA: 253.1.21.

(110) Zigorrik gogorrena kexa guztien zerrendaren aurkezleek jaso zuten, zalantzarik gabe. Bizkaitik lau urtetako erbestaldia, 400.000 marauritako isuna eta Epaille eta gainerako legegizonen hogeita lau egunetako soldata ordaindu behar izan zuten, ustezko kalumniak zirela medio. Dena dela, Batzar Nagusietako zalapartagatik akusatu berberak Gallo de Andradak epaitu zituela eta azkeneko auzi hau geroago erabaki zela ohartarazi beharra dago. Izan ere, ondoko sententziaren arabera, kexa guzti haiek gezurrezkoak ziren zalantzan jar daitezke, nire ustez.



Lizentziatuari sartzen utzi. Bertan, gainera, Lur Lauaren ohiko mezuak berriitu ziren, meha kanporatzearen kontrako irizpidea edota konbertituak atzerriratzearen aldekoa, esaterako (111). Baina Maiatzak 27ko Erregimentu Orokorretan ganboatarrak Gómez de la Puertaren auzian erdietsitako garaipenaren etekina gauzatu zuten. Alde batetik, soldaduak alistatzen beraiek proposatutako prozedura nagusitu zen. Bestetik, Jaurerriak autoak Errege Kontseilura ez eramateko auzia bere gain hartu zuen. Azkenik, eskutitzak irekitzea edota, horren arabera, Erregimentuak deitu beharra zegoen erabakitzea Ahaldun Nagusi, Sindiko, Legegizon eta Herenetako ordezkari zegoikiela ebatsi zuten. Garaipen hura Azaroan finkatu zen (112) Gorteetako ordezkari modura Martín de Abendañoren izendapenari esker, Antonio Gómez de Butrón galtzaile izan zela (113). Hala eta guztiz ere, zigilu bakarra izateko beharra berriitu, eskumenak zirela kausa Bermeo edota Bilbo bezalako Hiribildu batzuen aurkako auziak berpiztu eta atzerritarrak lur ondasunetako erosketen bitartez finkatzeko aukera ekidin zuten.

Urtarrileko hauteskundeetan ere ganboatarren lana saritu zen. Martín de Abendaño Ahaldun Nagusi izendatu zuten aho batez. Azkenik, Gobernu berriak Hiribilduenganako Lur Lauaren aurkakotasuna moteldu zuen. Izan ere, agintaldi hartan bi blokeen arteko auzi guztiak eten egin ziren urtebetez, izurritearen ondoriozko larrialdiaren aitzakiaz (114).

## 6.AHALEGIN PORROKATUA: 1609.EKO AKORDIO INSTITUZIONALA

1609. urtean blokeen arteko tira-birak konpontzeko asmoz behinbetiko Konkordia sinatu arte izandako ahaleginik sendoena du. Logikoa zenez, Hiribilduek bultzatu zuten ekimena. Jaurerriko erakundeetako nagusitasuna Lur Lauari zegokionez gero, indarrean zegoen *statu quo* delakoa eraldatzen interesik nabarmenena zutenak Hiribilduak ziren. Akordioari esker Lur Lauak jaso zezakeen abantailarik nagusia bi blokeen elkarren kontrako auziek sortarazitako etengabeko gastu handien amaiera zen. 1630.eko Konkordiarekin konparatuz gero, 1609.eko akordioa mugagabekoagoa da: bertan ez zen demografia, ogasun edota jurisdikzioari buruzko araurik (115).

(111) Zer esanik ez: oinaztarrak deialdi honen aurka agertu ziren.

(112) 1595.eko Azaroaren 10eko Erregimentu Orokorrak.

(113) Egia esan, hauteskunde hartan izandako emaitzak nahiko estuak izan ziren. Garaipena ganboatarren eta Hiribildu gehienen botoen bidez –Ahaldun Nagusiarena izan ezik– lortu zuen. Dena dela, Ondarroa eta Markinako ordezkariak udalerrietako ahalmenak faltsutzen ahaleginu ziren Abendaño ez izendatzeko asmoz. Bestalde, Francisco Ibáñez de Malleak, hirugarren hautagaia zenak, Butrón y Múxica baino boto gehiago lortu zuen.

(114) 1598.eko Urriak 21eko Erregimentu Orokorrak. Bitxia bada ere, Lur Lauak banakako Hiribilduen aurka zituen auziak, berriz, mantendu ziren.

(115) Sutege-errodaren arabeko gehieneko ordainketari buruzko auzia bukatu gabe izateak hutsunea baldintza zezakeen.

Baina, F. DE SAGARMÍNAGAK ohartarazi zuenez, akordioaren ahulezia erakundeetako bikoiztasuna iraunaraztea zen, bi blokeak ezberdinduta mantentzen zirelako (116).

Bestalde, Lur Laua noraino amore emateko prest zegoen ikusi behar zen. Izan ere, Batzar Nagusietako diferentziak berehala lehertu ziren: Juan Galíndez de Veléndiz Ahaldun Nagusi ganboatarra eta Pedro de Urasandi Sindiko oinaztarra elkarren aurka aritu omen ziren eta, azkenik, biak kanporatu zituzten bileratik. Dena dela, iskanbila baino nabarmenekoagoa Lur Lauko ordezkarien arteko ezadostasuna izan zen. Horren erreakzioa bando-zaletasunaren bitartez gauzatu zen, aurrekoetan bezala. Akordioaren aldeko botoak ozta-ozta nagusitu ziren (117).

Edozelan ere, akordio ezegonkor hura ez zen inoiz indarrean sartu. 1609.eko Ekainak 17ko Erregimentu Orokorretan hitzarmenaren kontrakoek berrikuspena exijitu zuten, blokeen arteko orekaren aitzakiaz baliatuz. Akordioaren ondorioz, Lur Lauko barne kontraesanak areagotu ziren eta batzuk berehalako hauteskundeak deitzea eskatu zuten. Azkenik aurkariak nagusitu ziren eta lehenbiziko Konkordia hura baliogabetu zen 1609.eko Uztailak 15eko Batzar Nagusietan. Horretarako leinuen arteko orekaren argudioa erabili zuten, benetako asmoa Erregimentuetan Hiribilduek lortutako nagusitasuna bertan behera uztea izanik ere. Ahaldun Nagusiek emandako adierazpenaren arabera, Erregimentuetan bandoen arteko parekotasunari buruzko diferentziak konpontzeko, Hiribilduek hamalau ordezkari baino ez zituzten izango, bertan botoa emateko eskubidea zuten Lur Lauko ordezkarien kopuru berbera zena.

Hogeigarreneko hamarkada arte itxaron behar izan zen, beraz, Bizkaiko Jaurerriko behin betiko batuketa prozesua gorpuzten hasteko.

Aurrez azaldutakoaren arabera, Goi Aro Berrian zehar Bizkaiko erakundeek tira-bira ugari izan zutela esan daiteke (beti ere lehenbiziko urteetako informazioaren eskasia kontutan hartuta). Enfrentamendu haiek, gehienbat, bi eredu juridiko kontrajarrien aurkakotasunaren ondorioz suertatu ziren, kasuan kasu era desberdinez agertu arren. Bando-zaletasuna sarritan izan zen enfrentamenduetako adierazpide nagusienetarikoa (aitzineko jatorria eta kutsu sinboliko handia zuten beste batzuk bezala, lehentasuna, esaterako). Dena dela, blokeen gatazka guztiz ondo bereizita eta aldaketarik gabeko bi multzoren elkarren kontrako tira-bira bezala aurkezterik ez

## 7. ONDORIOAK

(116) F. SAGARMÍNAGA (1892: I, 266-269). Bertan akordioaren edukia ere agertzen da. G. MONREAL CÍAK (1974: 130-132) gaia landu zuen.

(117) Hiribilduei esker –akordioaren alde agertu ziren guztiak, Plentzia izan ezik– tartea zertxobait zabaldu zen. Aurkakoek, bestalde, ez zuten jarrera bakarria izan (Elizate batzuk akordioaren kopia eskatu zuten).

dago, bi taldeetan irizpide desberdinak azaleratu zirelako. Hiribilduekin izandako jokabidea agintaldiz agintaldi alda zitezkeen Gobernuetako interes nagusiek baldintzatu zuten. Horregatik hauteskondeetan lehiakideen arteko liskarrak sortarazi ziren noizbait (118). Zeresanik ez: Gobernuak ez zuten talde bateratua osatu. Korrejidoreak ere ez ziren kasu guztietan elkarte osoaren zerbitzurako bitartekari objektiboak izan. Bizkaiko erakundeen arteko partaidetza zabalenerako baliabidea izandako Batzar Nagusietan lekutu ziren enfrontamendu eta desoreka haien agerpide ikusgarrienetako batzuk, aurreikus zitezkeen bezala. Erakunde mailako konponbiderik lortzeko ahaleginak normalean Hiribilduetako kideek bultzatu zituzten, bazter-tutako interesik nagusienak beraienak ziren eta. Baina behin betiko Konkordia ez zen 1630. urtea arte lortu.

## 8. INPRIMATUTAK O ITURRIAK ET A BIBLIOGRAFIA

ALBERDI LONBIDE, X. ETA ARAGÓN RUANO, A. (1995): "La pervivencia de los parientes mayores en el poder político local de Guipúzcoa durante el periodo 1511-1550" In *Las Juntas en la conformación de Gipuzkoa hasta 1550* Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 287-312 orr.

AREITIO Y MENDIOLEA, D. (1943): *El Gobierno Universal del Señorío de Vizcaya* Bilbo: Bizkaiko Aldundia.

AREITIO, D. ETA SAGARMÍNAGA, F. (1928): *El Gobierno y Régimen Foral del Señorío de Vizcaya* Bilbo: Bizkaiko Aldundia.

ARRIETA ALBERDI, J. (1994): *El Consejo Supremo de la Corona de Aragón (1494-1707)* Zaragoza: Fernando el Católico.

ENRÍQUEZ FERNÁNDEZ, J. [ET AL.] (1994): *Juntas y Regimientos de Bizkaia. Actas de la Tierra Llana. Tomo III. Mayo 1576-1583* Bilbo: Bizkaiko Batzar Nagusiak.

GARCÍA ARBAIZA, J.I. [ET AL.] (1994): *Juntas y Regimientos de Bizkaia. Actas de Villas y Ciudad. Tomo II. 1571-1582* Bilbo: Bizkaiko Batzar Nagusiak.

GARCÍA DE CORTÁZAR, J.A. [ET AL.] (1985): *Vizcaya en la Edad Media. Evolución demográfica, económica, social y política de la comunidad vizcaína medieval* Donostia: Haranburu.

ITURBE AMOREBIETA, J.A. [ET AL.] (1994): *Juntas y Regimientos de Bizkaia. Actas de la Tierra Llana. Tomo II. Junio 1569-Abril 1576* Bilbo: Bizkaiko Batzar Nagusiak.

LABAYRU Y GOICOECHEA, E.J. (1899/1901): *Historia General del Señorío de Vizcaya* Bilbo: L.G.E.V. (1971.eko berrargitalpena).

